



Alderdia Bizi

ALDERDI EGUNA 2026

2026.09.27 | Igandea | Forondan

Imanol Pradales Lehendakariaren hitzaldia

Alderdikideok, abertzaleok, euskaldunok: egun on!

Beste urte batez, hemen elkartu gara, Forondan! Gaur berrogeita hamargarren Alderdi Eguna ospatzen dugu. Aralarren izan zen lehena, 1977an. Agirreren Gobernua erbesteratu, eta handik 40 urtera. Garai nahasiak. Zalantza handiak. Beldurrak. Franko hilda zegoen. Frankismoa ez. Euskara eta euskal kulturaren kontrako erasoak. Gure industria gainbeheran eta langabezia. Indarkeria eta terrorismoa, mutur batetik zein bestetik. Baina, horrekin batera, argi izpiak. Ilusioa, emozioa eta itxaropena. Etorkizun gosea. Herri oso bat, aurrekoen lekukoa hartzeko prest.

Aralar fue posible gracias al acierto de quienes lo idearon y al trabajo de cientos de personas voluntarias, a las que hoy hemos rendido homenaje. Damos las gracias a quienes habéis estado al pie del cañón Alderdi tras Alderdi. Eskerrik asko guztioi zuen konpromiso eta lanagatik! Txalo bero bat zuentzat! Eskerrik asko!

Aquel día en Aralar, trabajaron cientos de voluntarios. Mujeres y hombres venidos de los 7 herrialdes, entre ellos, Aita y osaba Aitor. Fueron Ertzañas del Partido en aquel primer Alderdi. Qué gran honor y qué responsabilidad... Acudieron decenas de miles de personas, superando controles de la Guardia Civil. Multas. Riesgo de ataques... Nunca olvidaré lo que me contaron: “Imanol, ¿sabes qué clave utilizábamos? Batasuna eta Indarra”. Me siento orgulloso. Nunca podrá agradecerles todo lo que me transmitieron. Ellos, y toda su generación. ¡Compromiso con Euskadi y con el Partido Nacionalista Vasco! ¡Confianza en este Pueblo! ¡Con su santo y seña! ¡Con la Clave para todas y todos! ¡BATASUNA ETA INDARRA!

Aralar gure mendi sakratua da. Gure historiaren, kondairen eta sinesmenen ikurra.

A ze eguna 77koa! Han elkartu ziren gudari zaharrak. Han besarkatu ziren klandestinitatean edo kartzelan egondakoak. Zoriontasuna. Musuak. Irribarreak. Malkoak. Alderdikideak. Alderdizaleak. Abertzaleak. Familia erraldoia. Beldurrik gabe, askatasuna arnasten. Denak proiektu berean elkartuta. Baita espero ez zuten jendea ere. Baten batek esan zuen: honen ostean lasai hil naiteke. Oholtzan, erreferente handiak. “Jokoan dago Euskaldunon kausa datozen 40 urteetarako”, esan zuen Irujok. Ez zen gutxiagorako. Erabaki beharra zegoen. Eta erabaki genuen. Euskadiren norabidea markatu genuen. Eta demokraziaren bidetik Herri hau martxan jarri. Gaur, Aralarko Alderdi Eguna oroitzen dugu! Iluntasunaren aurrean, argia! Autoritarismoen aurrean, demokrazia! Zatiketa eta zapalketaren aurrean: Aberria askatzeko, Batasuna eta Indarra!



Alderdia Bizi

ALDERDI EGUNA 2026

2026.09.27 | Igandea | Forondan

Nondik gatozen ezagutu behar dugu nora joan nahi dugun jakiteko. Gogoratu nola geunden duela 50: zenbat arazo, kezka eta zalantza... Eta asmatu genuen. Agirre eta Leizaolaren legatuari jarraipena eman genion. Autogobernua. Eskubide Historikoak. Gernikako Estatutua. Itun ekonomikoa. Y es que hay que recordar algunas cosas. En 1977, no todos actuamos igual. Unos abrazaron la vía de la violencia y la lucha revolucionaria. Despreciaron y denigraron el camino del Autogobierno. Nosotras y nosotros apostamos por construir Euskadi piedra a piedra, por defender la democracia y los derechos humanos. Y nos pusimos manos a la obra. El País estaba en ruinas. Comenzamos desde cero. Autogobierno al servicio de la construcción social y la construcción nacional. Las dos caras de la misma moneda.

Hoy se aplaude y reconoce aquella apuesta: Clústers, Parques Tecnológicos, RGI contra la pobreza, Metro, Kursaal o la capacidad transformadora del Guggenheim. Este legado lo reconocen hoy, incluso quienes lo combatieron. La labor del Lehendakari Garaikoetxea, arquitecto de nuestro Autogobierno. Del Lehendakari Ardanza: búsqueda permanente de la paz, impulso para sacar a Euskadi de la ruina industrial, modernizar la economía, y garantizar siempre la cohesión social.

Mende berriak erronka berriak ekarri zituen. Gogoan dut, karrera bukatu nuenean, Ezkerraldean gazteriaren erdia baino gehiago zegoela langabezian. Jauzi berria eman behar genuen. Euskadi modernizatu. Zerbitzu publikoak zabaldu eta sendotu eta, horrekin batera, etorkizuneko erronkei erantzun. Orain jasotzen ari gara Ibarretxe Lehendakariaren erabakien fruitua. Giza garapena; Biozientziak, Energia edo Aeronautika; Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia; edo Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna.

Ez daukat ahazteko eta denok dugu gogoan, “vascos y vascas”. Urkullu Lehendakariak ereindako uzta ere jasotzen ari gara: Bakea, Memoria eta Bizikidetzatza, Nazioartekotzea. Euskadi Basque Country; Kuantika eta Teknologia berriak; edota Finantza krisia eta pandemiari aurre eginez, zerbitzu publikoak bermatzea. Erabaki haiei esker, gaur Euskadi Herri aurreratua da! Eskerrik asko Garaikoetxea, Ardanza, Ibarretxe eta Urkullu Lehendakariak! Eskerrik asko!

Han sido 50 años de hacer frente a todo tipo de crisis. Momentos muy complicados. Años de avanzar juntos, paso a paso, pensando y gobernando para el conjunto del País. Poniendo siempre a la persona y su dignidad en el centro de nuestra acción política. Hoy contamos con instituciones sólidas que nos permiten gobernar nuestra propia Casa. Y en esta Casa hay calidad de vida. Gracias al compromiso de miles de mujeres y hombres hemos llegado hasta aquí.



Alderdia Bizi

ALDERDI EGUNA 2026

2026.09.27 | Igandea | Forondan

¡Claro que seguimos teniendo problemas y retos! Tenemos que hablar de ellos y responder con medidas y propuestas: Hacer frente al incremento del coste de la vida: la cesta de la compra, la luz o el gas, el depósito del coche o la hipoteca. Mejorar la educación y los resultados académicos; combatir el acoso escolar o afrontar el tema de las pantallas. Construir más viviendas y más rápido. O impedir que se desahucie injustamente a las personas. Contar con 8.000 Ertzainas al servicio de nuestra seguridad. Mejorar la Atención Primaria y reducir las listas de espera. Ayudar a nuestros baserritarras, arrantzales, ganaderos y viticultores que lo están pasando mal, o aumentar los salarios y mejorar las condiciones laborales de la juventud. Son problemas distintos, sí, pero tienen algo en común: forman parte de la vida cotidiana de la gente. Y ahí vamos a estar siempre. Como aquí, en la campa: estando con unos y otros, compartiendo lo bueno y lo malo, y hablando de todo. Pisando calle. Escuchando a las personas. Poniéndonos en el lugar del otro. ¡Mirando a los ojos de la gente! ¡Con medidas concretas! ¡Eso es hacer País día a día y cuidar a la gente! ¡Eso es gobernar!

50 urteko ibilbide honek Herri aurreratu eta oparoa utzi digu. Nahiz eta pasa den asteko Politika Orokorreko batzuei kasu egingo bagenie... Ze analisi katastrofistak! Dena da gainbehera! Dena desastre hutsa! Benetan? Benetan Herri berean bizi gara? Egia da garai zailak bizi ditugula. Gerrak han eta hemen. Eraldaketa sakonak. Demokrazien kontrako erasoak, autoritarismoa edo populismoak. Eta aurre egin behar diegu. Horregatik Euskadi etorkizunerako prestatzen ari gara. Norabidea markatuz. Biharko Euskal Etxea zutabez-zutabe eraiki: Bat: Euskal industria eraldatu eta Enpresen errotzea eta hazkundera sustatu. Bi: Administrazioa sinplifikatu, Osakidetza berria prestatu, Hezkuntza hobetu, eta Etxebizitza gehiago eta azkarrago eraiki tresna eta funts berriekin. Hiru: Aliantzak sendotu euskal zazpi lurraldeen artean, eta nazioartean. Lau: Aldaketa Klimatikoa, Migrazioa, eta Adimen Artifiziala erronkei erantzun, eta bost: Harrobia zaindu eta talentua sustatu: Lanbide Heziketan, Unibertsitatean, edo Ikerketan.

Ikusten duzue. Gobernua martxan dago. Guk ez dugu hauteskundeei begira gobernatzen. Ez. Epe luzera begira gobernatzen dugu. Baina...hor dabilta batzuk... kalkuladora eskutan. Herria Alderdiaren aurretik jartzen dutela esanez. Garai honek ez du erretorika eta lirikarik eskatzen! Garai honek eskatzen duena da: Elkarlana! Zintzotasuna! Eta Euskadi aurrera ateratzeko bustitzea! BUS TI TZE A!

El año pasado dije que debemos preparar la Casa Vasca para el futuro. Y el autogobierno es nuestro instrumento político. Las y los vascos siempre hemos luchado por tener la capacidad de gobernar nuestra propia casa. Que quienes aquí vivimos y trabajamos, podamos decidir sobre las cuestiones que nos afectan. Nunca hemos pretendido gobernar a otros, ni la casa de otros. Por eso no admitimos que otros nos impidan autogobernarnos. En 1979 logramos un pacto político de mínimos: el Estatuto de Gernika. Fue pactado con el Estado y Refrendado por este Pueblo.



Alderdi Bizi

ALDERDI EGUNA 2026

2026.09.27 | Igandea | Forondan

Pero la carpeta de Gernika sigue sin cerrarse. Por desgracia, cada Alderdi Eguna debemos recordarlo. Este Gobierno está poniendo toda la carne en el asador para que se cumpla el Estatuto en su integridad. Y los plazos se agotan. También estamos trabajando con la Agenda Bilateral y para lograr nuevas capacidades políticas.

Hoy quiero recordar al Presidente del Gobierno español que este Pueblo valora el Pacto y la palabra dada. Pero si hay algo que no aceptamos es que se juegue con ella. El tiempo se acaba. Aún tiene una oportunidad. En su mano está que el próximo Alderdi Eguna pueda venir aquí y deciros que Sánchez ha cumplido el pacto y la palabra. Veremos. En todo caso, esté quien esté en Moncloa, debe saber que el Autogobierno no es una moneda de cambio. Que con el Autogobierno no se juega. Que nunca vamos a renunciar al derecho de gobernar nuestra propia Casa. ¡Nunca! ¡Se lo debemos a quienes nos antecedieron! ¡A quienes estuvieron en Aralar! ¡Y a quienes están por venir!

Autogobernua norbere buruaren jabe izatea da. Ardura hartzea da. Eta arduraz ari garela, euskaldunok badugu gurea: euskara. Iaz 'Euskadi Euskaldun' Madrilén ere entzun zuten. Eta erantzun zuten. Erantzun penagarria eta iraingarria. Azken hamarkadetan aurrerapauso erraldoia eman dugu euskararen ezagutzan. Orain, beste horrenbeste egin behar dugu erabileran. Horretarako jarri dugu martxan 'Jauzia Gara' ekimena. Por cierto, Jauzia Gara es también una invitación para acercarse al euskera a quien no lo conoce. El Euskera necesita la complicidad de todas y de todos en Euskadi. Baina etorkizuna bermatzeko galdera deserosoa egin behar diogu gure buruari: zergatik euskaraz dakigun bi pertsonen batzuetan ez dugu elkarren artean euskaraz hitz egiten? Badakigu batzuk euskara gatazkarako erabiltzen dutela. Badakigu ere epaitegietatik zer datorren. Baina ez dezagun gure burua engainatu. Euskararen defentsa ez da bakarrik erasoen aurrean tinko agertzea. Euskara egunero bultzatzen da: etxean, kalean, lantokian, edo sareetan. Hemen, ere. Zelai honetan ere. Egunero, eta eguneroko ekintza eta keinu txiki askorekin. Euskara dakigunok eman behar dugu aurrerapausoa! Milioi bat lagun gara zazpi lurraldeetan! Herri batek euskaraz hitz egiten badu, ez du inork geldituko! Ez gaitu inork geldituko!

Me preocupan mucho algunas de las cosas que estoy escuchando y leyendo últimamente. Ataques desde muchos frentes. Contra el euskera. Contra el Autogobierno. Contra este Pueblo. Se oyen voces que me recuerdan lo vivido hace 25 años. Últimamente estamos viendo mucho a un viejo conocido de este Pueblo que vuelve a primera línea del frente. No es cualquiera. Se considera el gurú, el guardián de las esencias de la auténtica derecha española. Y está diciendo muchas cosas. Os leo: "El chantaje nacionalista se ha terminado. No pueden seguir aspirando a ampliar su ámbito competencial". "Es el momento de que el Estado vuelva a desplegarse en Euskadi". "El nacionalismo vasco es un fracaso histórico. Un modelo agotado". Todo eso ha dicho.



Alderdia Bizi

ALDERDI EGUNA 2026

2026.09.27 | Igandea | Forondan

Sabéis de quién os hablo, ¿verdad? Sí. Del que estáis pensando. De Aznar. Se ha vuelto a poner la armadura del nacionalismo español. El disfraz del Cid Campeador dispuesto a reconquistar España. No hay más que verle paseándose por Ceuta, hablando de “cobardía” o “traición”. O eso de que: “el que pueda hacer, que haga”. Cuidado con pensar que solo apunta a algunos. Aviso a navegantes. Si el PP que manda es el PP de Aznar. Si el PP de Aznar, con VOX, llega a la Moncloa... Kontuz! Kontuz! Ya les conocemos. Y sabemos de lo que son capaces. Lo sufrimos hace 25 años. Pero, los Aznares y Abascales. Que recuerden... que recuerden que hace 25 años este Pueblo reaccionó. ¡Nos pusimos en pie! Fuimos a votar en masa y dijimos: ¡No a Aznar! ¡No a la imposición! ¡Sí a Ibarretxe! ¡Sí a Euskadi! Eta zer esan zuen gure Herriak? Ari, Ari, Ari, Ibarretxe Lehendakari!

Alderdikideok, alderdizaleok, abertzaleok: gaur kamiseta berezia daramat jantzita. Bi ikur dauzka: Ikurriña eta 90 zenbakia. Duela 90 urte, Agirrek eta Eusko Alderdi Jeltzaleak garai zailenetan bide zuzena aukeratu zuten. Ez errazena, bai egokiena. Gure Herriak jarraitu zuena. Duela 50 urte gure Alderdiak bide zuzena aukeratu zuen. Ez errazena, bai egokiena! Gure Herriak babestu duena. Gaur ere, garai nahasi hauetan, aurrekoen bidetik goaz. Bide zuzenean. Despistatu gabe. Brujula bera eskutan. Hau da gure bidea! Aurrekoek erakutsi zigutena! Hau da gure kamiseta! Hauek dira gure koloreak! Berdea, Gorria eta Zuria! Jantzi dezagun gure kamiseta!

Euzkadi da euskotarron aberria!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euzkadi Askatuta!



Alderdia Bizi

ALDERDI EGUNA 2026

2026.09.27 | Igandea | Forondan